

ERREKLAMAZIOAK KUDEATZEKO PROZEDURA

Erreklamaziorako prozedura

Izan duzun emaitzarekin ados ez bazaude eta erreklamazioa aurkeztu nahi badiguzu, eskabidea IVAPeko web-gunean argitaratutako erreklamazio-orrian egin behar duzu eta honako helbidera bidali:

IVAP
Euskalduntze Zerbitzua
Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

Erreklamazioa-epea abenduaren 23tik 31ra artekoa izango da, biak barne.

Erreklamazio-orria jasotzen dugunean, Epaimahaiak zure azterketa berraztertu egingo du eta hartutako erabakia idatziz jakinaraziko dizu. Erreklamazio guztiak aztertu eta erabaki ondoren behin betiko emaitzak IVAPeko web orrian eta buletinean argitaratuko dira.

Idatzizko azterketaren emaitzen kontra erreklamazioa jarri eta erantzuna zure aldekoa izango balitz, erreklamazioaren emaitza jakinarazi eta gutxira, ahozko azterketa egin ahal izango duzu IVAPeko Lakuako egoitzan.

Erreklamazio epe barruan honakoak ere eskatu ahal dizkiguzu:

Azterketaren kopia edo grabazioa entzutea

Zure idatzizko azterketaren kopia eskatzeko edota ahozko saioa entzuteko aukera izango duzu. Horretarako, bidali mezu elektronikoa bat ondoko helbidera eta bertan adierazi zure datuak eta harremanetarako telefono-zenbakia:

r-artola@ivap.es.

- Idatzizko azterketaren kopia eskatzen baduzu, zuk igorritako helbide elektronikora bidaliko dizugu.

- Ahozko proba entzutea eskatzen baduzu eta kontuan izanik mintzamen saioak bikoteka grabatzen direla, ezin dugu kopiarik bidali. Beraz, IVAPek Gasteizen duen egoitza nagusira etorri beharko duzu zure saioa entzutera; entzutera etortzeko eguna **abenduaren 28a** izango da eta mezu elektronikoz jakinaraziko dizugu zein orduetan etorri beharko duzun.